

## BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gaur egun jendeak mugikorraren erabilpen handia egiten du eta horrekin batera sare sozialaetan murgilduta dabil. Horregatik uste dugu gure bezeroak erakartzeko aukerarik onena sare sozial batean kontu bat sortzea izango dela.



Gure sare sozialak modu eraginkor batean eraman ahal izateko, lagunduko digun marketin-enpresa batekin harremanetan jarriko gara. Horrela, inbertsio hau eginez, bezeroak erakartzeko helburua hobeto lortuko dugu. Gure edukia gure ur-parkea erakustea izango litzateke, horretaz gain, gurekin kolaboratzen duten markak erakutsi ahal izango ditugu, daukagun materiala erakutsiz. Hau izango da gure parkera etorriko diren erabiltzaileak lortzeko bide nagusia.

Bezeroak gure sare sozialen zain mantentzeko, gure sare sozialetan jarraitzen gaituzten pertsonei deskontuak emango dizkiegu, eta egun berezi batzuetan sarrera batzuk zozketatuko ditugu; horrela, gure sareetatik zintzilik egongo dira.



Bestalde, ahoz ahokoa izango da harreman hau sustatzeko beste bide nagusia. Gure parkera joan ondoren bezeroak oso pozik egongo direnez, gure parkeaz ondo hitz egingo diete bere lagunei, txakurrak dauzkaten ezagunei etab, beraz ezinbestekoa da asetasun maila hori lortzea.

Azkenik, zonaldeko albaitariek hitz egingo dugu, haien bezeroei gure enpresaz hitz egin diezaieten. Beraien kontsultetan gure informazioa banatzeko euskarriak utziko ditugu interesa pizteko.

Erabiltzaileak fidelizatzeko orduan, hauen asebetetzea lortzean datza gakoa. Bai txakurra eroso egotea, seguru sentitzea eta ondo zaindua egotea beharrezkoa den bezala, parketa hurbiltzen diren pertsonak ere horrela sentitzea gustoko dugu. Gustora dagoen erabiltzailea gure instalazioetara bueltatzeko asmoarekin joango da.

Bueltatzeko erabaki horretan laguntzeko, aurretik aipatutako zozketak eta deskontu bonoak erabiliko ditugu.

